

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Faustino Garatea Bilbao

*Lekeitio,
Bizkaia
(1932-2018)*

Aurkibidea



Biografia



1932an jaio zen Lekeition, familiaren etxea moilan bertan zegoen. Ama bermeotarra zuen eta aita lekeitiarra. Sei urtetatik 13 urtera arte herriko eskolara joan zen. Bere aita arrantzalea zen, eta herrian ohikoa zen legez bera ere 13 urterekin itsasoan hasi zen beharrean. Soldadutza ostean, 1956-1957 ikasturtean Ondarroako arrantza-eskolara joan zen patroikastera. 1957an, Irlandako uretan murgildu zen. Ordutik aurrera beti patroik moduan aritu izan da erretiroa hartu arte. Afrika aldean ere ibilitakoa da: Dakar, Senegal, Maroko... Hiru urtez aritu zen arrasteko arrantzan eta gainerakoak baxuran. Atunetan, antxoatan eta bisigutan ibilitakoa da, baina gehienbat atunetan. 1980. urtean Eibarreko Astelehena frontoiko jabea "kalamua" baporea erosi zien, "pelotari" ezizenez ezaguna zena. Emaztea ere lekeitiarra du eta lau seme-alaba izan zituzten; hiru semeak arrantzaleak dira. Arrantza munduko zirrikitu guztiak oso ondo ezagutzen ditu, eta azalpen guztiak zehaztasun osoz ematen ditu.

Zintak

LEK-010

- **Proiektua:** Lekeitioko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Erdozia, Olatz - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2010-05-12
- **Iraupena:** 172 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. Bermeora ihesi gerra denboran

- **Erref:** LEK-010/002
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:01:15. **Bukatu:** 00:02:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

<p>Hiru urte zituela sortu zen gerra. Bermeora eraman zituen amak gerra denboran. Gernika ketan zegoela itzuli ei ziren; italiarrak sartu berri ziren Bermeon. Anai-arreba asko ziren.</p>

2. Ume eta gazte denbora txarra pasatutakoa

- **Erref:** LEK-010/003
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:02:50. **Bukatu:** 00:04:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Gerraosteko miseriak: janik ez, zorriak, botikak falta... Ume-denbora eta gazte-denbora txarra pasatu zuen. Gerraosteko gabeziek asko iraun zuten. Frantzia eta Alemania askoz ere azkarrago eta hobeto errekuperatu ziren beren gerratik.</p>

3. Maisu errioxar makila zalea

- **Erref:** LEK-010/005
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:04:19. **Bukatu:** 00:06:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

<p>Maisua, errioxarra, gaiztoa ei zen. Makila erabiltzen zuen arin. 70 ikasle zituen. Lau erregela, "kebraduak", eta kito. Pizarratxoa erabiltzen zuten idazteko. Libururik ez. Mapa bat horman eta santuak gura adina. Herriko eskolan ibili zen. Cara al Sol kantatzen zen sarreran eta irteeran.</p>

4. Atxilotuak eta fusilatuak Lekeition

- **Erref:** LEK-010/006
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:06:21. **Bukatu:** 00:07:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Gogoan du barku bat etorri zela portura presoekin. Jende asko eraman zuten kartzelara. Fusilatuak ere izan ziren Lekeition, Damaso Leturiaren aita eta Malaxenekoa, esdaterako</p>

5. Heriotza-zigorra eta behartutako lanak

- **Erref:** LEK-010/008
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:07:55. **Bukatu:** 00:10:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Heriotza-zigorrarekin egon ziren lekeitiar asko. "Trabajadoreetan" hainbat urte ibili ziren. Berak ezagutu dituen batzuk izendatzen ditu behartutako lanetan gerraostean ibilitakoak. Lagun batek esaten zion belarra ere janda zegoela gosearen gosez.</p>

6. Baserritarrei esker iraun zuten gose denboran

- **Erref:** LEK-010/009
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:10:05. **Bukatu:** 00:12:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Errazionamendu kartillaz ondo gogoratzen da. Azukre beltza ematen zuten, findu gabekoa. Eskerrak baserritarrei. Garia denek hartzen zuten; ogia eta esnea ekartzen zuten, arrainaren eta diru apur baten trukean. Zezina ere egiten zen baserrietan, gatza emandako okela.

7. Eguneko arrantza egiten zen gurasoen denboran

- **Erref:** LEK-010/010
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:12:35. **Bukatu:** 00:13:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza motak » Kostaldeko arrantza
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Atuna

Laburpena:

<p>Sasoi hartan eguneko arrantza egiten zen Lekeition. Artean ez zegoen hozkailurik eta horrelakorik. Atunetan Santander aldera jotzen zuten gurasoen denboran, baina egunero itzultzen ziren portura. San Vicente de la Barquera, Ribadesella...</p>

8. Eguneko arrantzatik astebetekora

- **Erref:** LEK-010/011
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:13:39. **Bukatu:** 00:14:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza motak » Kostaldeko arrantza

Laburpena:

Bera itsasoa hasi zen sasoian baziren hozkailuak. Atunetan sei-zazpi egun egiten zituzten itsasoa. Neguan bisigua hamar bat milatara harrapatzen zuten. Gerora, barku handiak egin ziren. Hoge mila kilo eta hartzen zituzten. 22-23 metrokoak ziren.

9. Bermeo eta Lekeitiotik Senegalera arrantzara

- **Erref:** LEK-010/012
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:14:40. **Bukatu:** 00:16:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza motak » Alturako arrantza

Laburpena:

Senegal aldera joaten hasi ziren neguan, enpresa-gizon kanariar batek kontratatuta. 23 barku joan ziren 1959an sei hilabeterako, hoge Bermeokoak eta hiru Lekeitiokoak. Kanarietatik eramaten zieten janaria eta izotza. Hantxe zeuden Senegalek independentzia lortu zuen egunean, 1960an.

10. Kanarriarrei saltzen zieten arraina hasieran, kaliforniarrei gero

- **Erref:** LEK-010/013
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:16:46. **Bukatu:** 00:18:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- Itsasoa » Arrantza motak » Alturako arrantza

Laburpena:

Sierra Leonan kokatuta zegoen enpresa kaliforniar bat jarri zen eurekin harremanetan Senegalen. Hobeto ordaintzen zieten kanariarrek baino, dirua eskura gainera, eta handik aurrera hari saltzen zioten dena. Harrezkero beste kanpaina pare bat egin zuten modu berean.

11. Barkuek ez zuten orientazio tresneriarik

- **Erref:** LEK-010/016
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:20:23. **Bukatu:** 00:21:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Nabigazioa

Laburpena:

Ondarroako eskolan ikasi zuen patroï karrera. Orduan barkuek ez zuten tresneriarik, sextante batez konpondu behar non zeuden jakiteko. Portura sartzeko ere asko arriskatu behar.

12. Bisigutara neguan kaletara

- **Erref:** LEK-010/017
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:21:48. **Bukatu:** 00:24:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsaspeko geografia
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Bisigua

Laburpena:

Bisiguaren kalak non zeuden oso ondo zekiten aurreko zaharrek. Mendiei begira orientatzen ziren, Anbotara, esaterako. Hainbeste mila barrura. Beren izenak zituzten kalek. Itsasoak 120 eta 160 braza arteko sakonera zuen lekua egoten zen bisigua.

13. Azarotik urtarrit amaierara bisiguaren sasoia

- **Erref:** LEK-010/018
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:24:38. **Bukatu:** 00:27:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Bisigua

Laburpena:

Azaro azkenalditik urtarrit azkenerraino harrapatzen zen bisigua. Pentsatzen du geroago ere harrapa zitekeela, baina ordurako karnata hondatuta egoten zenez, ezin. Gero frogatu zen amu eta karnata onarekin apirilera arte harrapa zitekeela bisigua.

14. Elantxobetik Igeldo bitartean bisigua

- **Erref:** LEK-010/019
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:27:29. **Bukatu:** 00:30:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Bisigua
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsaspeko geografia

Laburpena:

<p>Elantxobetik Igeldo bitartean harrapatzen zen bisigua, 10-12 miliatara, pare bat orduko bidean joanda. Bermeo, Lekeitio, Elantxobe, Mutriku eta Getaria ziren bisigura dedikatzen zirenak. Ondarroarrak ez. Arrain asko zegoen sasoi hartan.</p>

15. "Seiñeruak" itsasoaren egoera aztertzen zuten gizonak

- **Erref:** LEK-010/020

- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:30:45. **Bukatu:** 00:33:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Eguraldia, ilargia eta mareak

Laburpena:

Kofradiak ordaindutako bi gizonek zaintzen zuten itsasoaren egoera, barometroari begiratuta eta abar. "Seiñeruak" esaten zitzairen. Girorik ez bazen ez ziren arrantzara irteten. Goizean goiz kalez kale marinelei deitzen ibiltzen ziren ardura hori zutenak, andreak normalean,

16. Esku-sunda sakonera jakiteko

- **Erref:** LEK-010/021
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:33:08. **Bukatu:** 00:34:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak

Laburpena:

Soka luzeari burdina bat, 'kandelejua', lotu eta hura erabiltzen zen sunda gisa itsasoaren sakonera jakiteko. Sakonera egokira heldutakoan hasten ziren arrantzan.

17. Lau ontziola Lekeition

- **Erref:** LEK-010/023
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:35:42. **Bukatu:** 00:37:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza

Laburpena:

BI ANAIA zuen izena euren gurasoen barkuak. Gerra aurrekoa zen. Herrian egindakoa; lau ontziola zeuden Lekeition. Barku asko egiten zen. Beharginak baserritarrak ziren asko.

18. Ikatzezko barkuak

- **Erref:** LEK-010/024
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:37:45. **Bukatu:** 00:39:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak

Laburpena:

Ikatzezko baporeak ere ezagutu ditu mutikotan. Bikote bat ezagutu zuen neguan arrastean egiten zuena. Bera baino lehenagoko sasoieta ugari ziren ikatzezko baporeak.

19. Julianen aita portuan ito

- **Erref:** LEK-010/025
- **Iraupena:** 0:04:53. **Hasi:** 00:39:02. **Bukatu:** 00:43:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasoko arriskuak

Laburpena:

<p>Julian Akarregiren aita, barkuko patroia, 1951ko abenduaren 28ko gauean ito zen Lekeitioko portuan. Denborale beldurgarria irten zen, herrian argiak joan ziren, eta bere barkua salbatu nahirik zebilela itsasoak eraman zuen. Ez zen haren arrastorik gehiago izan.</p>

20. 1964ko ekaitz ikaragarria portuan

- **Erref:** LEK-010/026
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:43:55. **Bukatu:** 00:46:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasoko arriskuak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

<p>1964an ekaitz ikaragarria izan zen. Haizerik ez zegoenez, jendea ez zen konturatu. Itsasoa modu beldurgarrian harrotu zen eta eskerrak marinelak laster esnatu ziren eta beren barkuak ondo lotu zituzten.</p>

21. 1964an hogeita zortzi barku handi Lekeition

- **Erref:** LEK-010/027
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:46:13. **Bukatu:** 00:48:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak

Laburpena:

1964an 28 barku zeuden Lekeition, denak 200 zalditik gorakoak. Lumetza eta Otoio barku bereziei buruzko xehetasunak. Kalamua zen euren; 63an estreinatu zuten. Zumaian motorrak egiten zituzten hiru enpresa zeuden.

22. Irlandako portuetara "arribadan"

- **Erref:** LEK-010/028
- **Iraupena:** 0:03:22. **Hasi:** 00:48:28. **Bukatu:** 00:51:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasoko arriskuak
- Itsasoa » Arrantza motak » Alturako arrantza

Laburpena:

Hogeita hiru urterekin patroik ikasketak egin zituen eta harrezkero patroia ibili zen jubilatuta. Arrastean ibili zen lehenengo. Titulua hartu eta lehen bidaia Irlandara. Hirunaka ibiltzen ziren, bi ontzi arrantzan eta hirugarrena arrain garraioan. Irlandako portuetara sartu ohi ziren "arribadan", itsaso txarrak behartuta. Bantry, Valentia... paraje pobreak ei dira.

23. Kalamua ontzia eibartarrei erosi zieten

- **Erref:** LEK-010/030
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:52:15. **Bukatu:** 00:53:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Flota
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

1980an erosi zuten Kalamua barkua. Eibarko Astelena pilotalekuko jabeena zen, Bidartetarrena. Beste sozio batzuk ere baziren, tartean Garate futbolistaren aita.

24. 'Pelotarixa' barkuaren ezizena

- **Erref:** LEK-010/032
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:56:18. **Bukatu:** 00:58:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Flota

Laburpena:

<p>Kalamua zen barkuaren izena, Pelotarixa ezizena. Ohitura zegoen barkuaren tximinian irudiren bat pintatzeko, eta pilotaria zuen eurenak, Eibarko pilotazaleei erositako zelako.</p>

25. Motor fabriken arteko konpetentzia

- **Erref:** LEK-010/033
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:58:07. **Bukatu:** 01:00:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak

Laburpena:

Konponketak egin zizkieten erosi berritan barkuari. Beranduago, motorra aldatu eta abar, Zumaian. Zumaiko motor enpresak desagertu egin ziren eta berria sortu, Guascor. Bermeon ere hasi ziren motorrak egiten. Gero atzerrikoen konpetentzia etorri zen.

26. Karga-ontziak

- **Erref:** LEK-010/034
- **Iraupena:** 0:03:33. **Hasi:** 01:00:07. **Bukatu:** 01:03:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak

Laburpena:

Lekeition baziren karga-ontziak ere, "kosteruak". Asturias aldera egurra, porlana, sagarra eta abar eramaten zuten eta handik ikatza ekartzen. Bi barku handi ikatz garraioan ibiltzen ziren "Altos Hornos"era. Gatza ere ekartzen zuten Cadiztik. Txakartegitarrek barkuak eta gatzagak zituzten.

27. Barku eta etxeetarako ikatzaren banaketa

- **Erref:** LEK-010/036
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 01:04:23. **Bukatu:** 01:07:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak

Laburpena:

Txakartegitarrak gatza ekartzen zuten Andaluziatik. Gero kamioi txikietan kargatu eta behar zen lekura eramaten zuten. Ikatza edukiontzi handi batean pilatzen zen kaian; handik hartzen zuten barkuek. Biltegi bat ere bazegoen, eta handik saltzen zen etxeetara.

28. Pinu-koskor bila basora

- **Erref:** LEK-010/038
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 01:07:46. **Bukatu:** 01:08:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

Pinu-koskor bila ere joaten ziren basora mutikotan goitibeherekin. Pinuak ondo egiten du su.

29. Karga-ontzi batek kai sarreran hondoa jo

- **Erref:** LEK-010/040
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 01:09:03. **Bukatu:** 01:11:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasoko arriskuak

Laburpena:

Bere begiekin ikusi zuen zelan geratu zen karga-ontzi bat azpian jota isla parean. Harrikatza zekarren. 120 tona hustu zituen jendeak, uretan gerriraino sartuta. Busti arren berdin egiten du su. Barkuko tripulazioa zeintzuk osatzen zuten.

30. Isuntza, Karraspio, Ondarzabal... hondartzen izenak

- **Erref:** LEK-010/042
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 01:12:50. **Bukatu:** 01:13:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsaspeko geografia
- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

Laburpena:

"Amanderri" (Amandarri?) du izena portu sarrerako farolak eta haren inguruak. Isuntza eta Karraspio hondartzek. Ondarzabal ere esaten diote batzuek Isuntzari.

31. Barkuaren parteak eta osagarriak (1)

- **Erref:** LEK-010/044
- **Iraupena:** 0:03:58. **Hasi:** 01:16:03. **Bukatu:** 01:20:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasontziko bizimodua

Laburpena:

Barkuarean parteak. Goian: puentea, 'guardekalorra', sukaldea, komedora... Azpian: kamarotiak, katriak, kamaiñak. Atzean: neberak, biberoak, makinak, manparoak...

32. Barkuaren parteak eta osagarriak (2)

- **Erref:** LEK-010/045
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 01:20:01. **Bukatu:** 01:22:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasontziko bizimodua

Laburpena:

Amura, branka, popa... Popatik haizeak jotzen duenean, ondo, brankatik jotzen badu, gaizki. Atzerago beste nebera bat eta gasolio tankeak. Hotza egiteko makinak.

33. Izotza beharrezkoa da barkuan

- **Erref:** LEK-010/046
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 01:22:22. **Bukatu:** 01:23:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasontzian arraina kontserbatzeko moduak

Laburpena:

Elurra (izotza) beharrezkoa du arrainak. Gainera gozoagoa egoten da. Hotz lehorra ez da aski.

34. Frantsesak eta barometroa eguraldiari igartzeko

- **Erref:** LEK-010/047
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 01:23:11. **Bukatu:** 01:24:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Eguraldia, ilargia eta mareak

Laburpena:

Frantses irratiek ematen zuten ondoen eguraldiaren berri. Barometroa bazuten. Asko jaisten bazen ez ziren itsasora irteten. Baina ezin jakin non zegoen borrasa edo antizikloia.

35. Haizerik onena, arrainaren norabidean datorrena

- **Erref:** LEK-010/048
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 01:24:40. **Bukatu:** 01:26:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Eguraldia, ilargia eta mareak

Laburpena:

Haizearen norabidea inportantea da sare arrantzatzeko orduan. Haizerik onena arrainaren norabide berean datorrena.

36. Haize klaseak

- **Erref:** LEK-010/049
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 01:26:10. **Bukatu:** 01:28:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Eguraldia, ilargia eta mareak

Laburpena:

'Norteko haizea', 'iparra' (ipar mendebalekoa), 'erreka haizea' (hego-mendelakoa), 'ipar baltza' (hotza, ekialdekoa, Bordele inguruan jotzen duena, esaterako), 'terrala', lehorretik jotzen duena.

37. Ilargia, lainoak eta barometroa

- **Erref:** LEK-010/050
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 01:28:27. **Bukatu:** 01:30:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Eguraldia, ilargia eta mareak

Laburpena:

Iretargiari asko begiratzen zioten lehengo zaharrek. Eguraldi onarekin jaiotzen bazen, onarekin jarraitzen ei zuen. Lainoei ere begiratzen zitzaien.

38. Itsaso barea eta galarrena

- **Erref:** LEK-010/052
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 01:30:27. **Bukatu:** 01:32:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Eguraldia, ilargia eta mareak

Laburpena:

"Bare" edo "kalma zurixa" olaturik ez dagoenean. 'Mendebala', 'erreka-hazia'. Ez dakite ziur zergatik sortzen den galarrena. Matxitxako aldean laino beltza ikusten denean, galarrena datorren seinale.

39. Itsas txoriak, arrantzaleen lagunak

- **Erref:** LEK-010/053
- **Iraupena:** 0:03:31. **Hasi:** 01:32:19. **Bukatu:** 01:35:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna » Hegaztiak

Laburpena:

'Txirriña' izeneko txoriak (zuria) berehala ikusten du atuna. 'Martiñak', beltza, ere bai. "Santzia" esaten zaio Lekeitio kaioari.

40. Hegaluzeak eta martinak Azores aldean lehendabizi

- **Erref:** LEK-010/054
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 01:35:50. **Bukatu:** 01:38:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Atuna
- Natura » Fauna » Errekakoak

Laburpena:

Kalatxoririk ez da ia ikusten. Gozoa da jateko. Martina ere bai. Honek atuna detektatzen du. Azores aldean ikusten dira asko. Kanada aldetik ei datoz. Izkira (gril) orbanak ikusten dira han. Hegaluzea Azores aldean detektatzen da lehendabizi.

41. Izurdeak arrantzaleen gidari

- **Erref:** LEK-010/055
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 01:38:20. **Bukatu:** 01:41:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Nabigazioa
- Fauna » Natura » Itsas fauna » Ugaztunak

Laburpena:

Antxoa, txitxarroa, berdela... urrunera ikusten dira. Izurdeekin orientatzen ziren arrantzaleak, arraina jatera etortzen baitira urrundik. Arraina azaleratzen laguntzen zuten eta orduan harrapatzen zuten sarez. 'Koplia' esaten zaion hegaztiak ere egiten du arrantzan, bala bat bezala murgilduz.

42. Kupoari aurre egiteko trikimailuak

- **Erref:** LEK-010/057
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 01:43:11. **Bukatu:** 01:44:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzako administrazioa eta legeak

Laburpena:

'Konpañiak', barku-taldeak, sortu ziren. Kupo a zegoenez, barkuek elkarri pasatzen zioten soberako arraina.

43. Karnata eta arrainaren adurra

- **Erref:** LEK-010/058
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 01:44:00. **Bukatu:** 01:45:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak

Laburpena:

Karnata egiteko antxoa txikia erabiltzen zen. 'Arkadan' gordetzen zen. 'Adurra' deitzen zaio arrainek larruan duten sustantzia labainkorrari. Hondoko arrainek gehiago izaten dute.

44. Traganarrua, haize-zurrunbiloa

- **Erref:** LEK-010/059
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 01:45:25. **Bukatu:** 01:46:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Eguraldia, ilargia eta mareak
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

'Traganarrua' esaten zaio haize-zurrunbiloari. Hemengo itsasoetan ez dira arriskutsuak izaten. Pertsona jatunari ere esaten zaio traganarrua.

45. Alga biltzaileak

- **Erref:** LEK-010/060
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 01:46:25. **Bukatu:** 01:47:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza motak » Harraldeko arrantza

Laburpena:

Lekeition batzuk dedikatu izan dira kostan algak biltzera. Donibane Lohizunen, Donostian eta Kantabria aldean ikusi du batez ere alga bilketa. Alga gorria.

46. Bermeotarrekin harremanik onena

- **Erref:** LEK-010/061
- **Iraupena:** 0:03:22. **Hasi:** 01:47:30. **Bukatu:** 01:50:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak

Laburpena:

Bermeotarrekin konpondu izan da ondoen itsasoan. Elkarrekin egon ziren Afrikan. Giputzeekin ez hain ondo; oso berekoiak ziren. Santandertarrekin ez du ezer jakin nahi. Gailegoekin ez du hartu-emonik izan.

47. Behe-lainoaz larri itsasoan

- **Erref:** LEK-010/062
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 01:50:52. **Bukatu:** 01:53:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasoko arriskuak

Laburpena:

Itsasoan hasi zenean ez zegoen ez irratirik eta ez ezer. Beste ontzi batzuen keaz orientatzen ziren askotan. Konpasaz konpontzen ziren non zeuden jakiteko. Behe-lainoaz larri ibiltzen ziren. Sirena jotzen zuten bost minututik bost minutura, eta aurrean mutilak adi egoten ziren.

48. Lehorreko irratien bidez orientatzen ziren gehienbat

- **Erref:** LEK-010/064
- **Iraupena:** 0:04:29. **Hasi:** 01:54:09. **Bukatu:** 01:58:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Nabigazioa

Laburpena:

"Gonio" esaten zaion aparatuaz orientatzen ziren. Lehorreko irratien uhinak nondik zetozen adierazten zuen, eta kalkulu batzuk eginez asmatzen zuten zein zen portu jakin batera zuzentzeko norabidea. Lekeitioko portura lainoarekin sartzeko komeriak. Ez zuten radarrik izan 1972ra arte.

49. Venezuelako espedizioaren porrota

- **Erref:** LEK-010/066
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 02:01:15. **Bukatu:** 02:04:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Beste batzuk
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdota, kontakizunak

Laburpena:

Venezuelara joan ziren hainbat herritako barkuak 78an. Baina ez zuten arrakastarik izan. Ez zekizkiten hango trikimailuak eta zorrak eginda itzuli ziren. Urte hartan antxoa asko egon zen Kantauri Itsasoan.

50. Kofradiako langileak

- **Erref:** LEK-010/068
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 02:05:30. **Bukatu:** 02:07:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Kofradia

Laburpena:

Kofradian idazkariak eta pare bat bulegarik egiten zuten lan; bazen errekaduak egiten zituen gizon bat ere, besomotza. 'Benterua' ere bai, salerosketez arduratzen zena. Dena berbaz egiten zen. Goitik hasi prezioa eta jaitsiaz joaten zen poliki-poliki. Andaluzian eta Kanarietan bitartekari bat egoten zen kanpotik heldutako barkuen gorabeherak eramaten zituen.

51. Arraina subastatzeko sistema berezia Lekeition

- **Erref:** LEK-010/070
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 02:08:26. **Bukatu:** 02:11:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Kofradia
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak

Laburpena:

Kanpoko barku asko sartzen zen Lekeition arraina saltzera, galiziarrek eta abar. Subasta, errematea, egiteko bonbo bat zegoen kofradian. Erosle bakoitzak bere aulkian botoi bat zeukan, behar zuenean sakatzeko. Bola bat irteten zen. Sistema azaltzen du.

52. Mahoizko arropak marinelen uniformeak

- **Erref:** LEK-010/072
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 02:12:07. **Bukatu:** 02:14:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

Laburpena:

Mahoizko arropak, jertse beltza eta jake lodia zen Lekeitioko arrantzaleen uniformeak. Eskularrurik ez. Udan sudurra gorrituta eta azala joanda izaten zuten.

53. Frantzian helikopteroa norbait gaixotzen zenean

- **Erref:** LEK-010/073
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 02:14:18. **Bukatu:** 02:15:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Osasuna itsasoan

Laburpena:

Norbait larri gaixotzen zenean, hurbilen zegoen portura eramaten zuten. Frantzian arreta ona zegoen. Helikopteroa ere jartzen zuten behar zenean.

54. Itsasoko legea norbait hiltzen denean

- **Erref:** LEK-010/074
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 02:15:52. **Bukatu:** 02:17:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Osasuna itsasoan
- Itsasoa » Arrantzako administrazioa eta legeak

Laburpena:

Itsasoko legeak dio norbait lehorretik hogeita lau ordura baino urrunago hiltzen bada, errezoak edo dena delakoak egin, bildu, lasta jarri eta urpera bota behar dela. Behin euren barkuko marinel galiziar bat hil zen, baina portura ekarri zuten hilotza.

55. Sobredosiak jotako marinel Frantziara helikopteroz

- **Erref:** LEK-010/076
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 02:17:44. **Bukatu:** 02:19:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Osasuna itsasoan
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Bordele inguruan zebiltzala, sobredosiak jota utzi zuen beren barkuko marinel bat, eta frantsesek helikopteroz eraman zuten. Han bere onera ekarri eta etxera itzuli zuten.

56. San Pedroak, arrantzaleak herrian egoteko eguna

- **Erref:** LEK-010/078
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 02:22:00. **Bukatu:** 02:23:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

San Pedro eguna ospatzen zen etxean hurbil zebiltzanean. Baina akordioa egin zuten gero: San Juan eguna baino lehen irtenez gero itsasora, baimena zegoen san Pedro eguna itsasoan igarotzeko.

57. Erlijioari lotutako errito gutxi barkuan

- **Erref:** LEK-010/080
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 02:24:36. **Bukatu:** 02:26:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Sineskerak, ohiturak eta erritoak

Laburpena:

Berak ez du izan santurik eta horrelakorik barkuan. Barku berria egiten zenean, abadeak bedeinkatzen zuen. Antzinako zenbaitek errezoak egiten zituzten eguzkia irteten zenean. Estutasunak pasatutakoa da portura sartzerakoan, baina ez da goikoaz akordatu izan.

58. "Bagea" eta tsunamia

- **Erref:** LEK-010/081
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 02:26:12. **Bukatu:** 02:30:12

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasoko arriskuak

Laburpena:

<p>Bagea olatu handi eta zabala da. Lau etorri ohi dira elkarren segidan, bigarrena handiena. Ez du arrisku handirik ontzi txikientzat, baina bai zama-ontzi luzeentzat. Erresaka eragiten du. Ur handitan tsunamiak ez du minik eragiten; beste gauza bat da kostara heltzen denean.</p>

59. Dinamitaz portua sakontzen

- **Erref:** LEK-010/082
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 02:30:12. **Bukatu:** 02:32:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

Dinamitaz portua eta sarrerak sakontzen jarduten zuten, dragatzen. Buzoak konpresore batez egiten zituen zuloak haitzean. Modesto buzoaren izena.

60. Elur-fabrika

- **Erref:** LEK-010/084
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 02:33:11. **Bukatu:** 02:34:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

Elur-fabrika betidanik egon da Lekeition. Antzina gutxi erabiltzen zen, neberadun ontziak egiten hasi arte.

61. Arto-maluta karnata gisa atunetarako

- **Erref:** LEK-010/085
- **Iraupena:** 0:04:01. **Hasi:** 02:34:25. **Bukatu:** 02:38:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak

Laburpena:

<p>Ehizan (kazan) arrantzatzen zuten antzina atuna, amuei arto-maluta jarrita. Arrainak pentsatzen du arrain txikiak direla eta heldu egiten dio. Sistema horri buruzko xehetasunak. Lejiatan edukitzen zen arto-maluta zuritu zedin.</p>

62. Sareak tindatzen

- **Erref:** LEK-010/087

- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 02:41:07. **Bukatu:** 02:42:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak

Laburpena:

Sareak harizkoak ziren 61-62rarte. Gero etorri ziren nylonezkoak. Tindatu egiten ziren urtean behin edo birritan. San Pedropean zegoen tindategia. Nola tindatzen diren. Gogortu egiten ziren sareak eta sokak tindatuta. Sareak astero atera behar izaten ziren lehortzera, bestela usteldu egiten ziren.

63. Diruak egin itsasoa aurkitutako kautxuarekin

- **Erref:** LEK-010/089
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 02:43:11. **Bukatu:** 02:46:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)

Laburpena:

<p>1942an, II. Mundu Gerran, urpeko alemaniarrek ibiltzen ziren Kantauri itsasoa. Estatu Batuak gerran sartu ziren eta material asko bidaltzen zuten Europara zama-ontzietan. Urpeko alemanek hondoratu zituzten haietako asko eta tartean kautxua zekartenak. Kautxu-xaflak ziren, ondo prentsaturakoak. Arrantzaleek "goma" haiekin diruak egin zituzten.</p>

64. Itsasoa aurkitutako koipe barrikak

- **Erref:** LEK-010/090
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 02:46:00. **Bukatu:** 02:47:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Bermeotarrek koipe-barrikak aurkitu zituzten itsasoa, zama-ontziei galdutakoak hauek ere. Produktu ona ei zen; Bermeora senideen etxera joaten zenean harekin prestatutako patata frijituak jaten zituen.

65. Hidroiabioia aurkitu eta Lekeitiora ekarri

- **Erref:** LEK-010/091
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 02:47:13. **Bukatu:** 02:48:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)

Laburpena:

<p>Lekeitiarrek hidroabioi alemana aurkitu zuten itsasoan II. Mundu Gerra sasoian. Lotu eta herrira ekarri zuten. Kantak eta dena atera zioten. Ez ei zuten harekin diru asko atera.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-11

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com